

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko ekainaren 28a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Getze • Noingo guduan eroritako nafarrei gorazarre egingen diete berriz igandean • 3

Julia Montejo • «Etorkinen gaia berbera da hemen eta AEBetan» • 7

Sanferminak bitrina barruan



Sanferminetako usaina eta zarata bitrina batean sartu nahi dute. Sanferminen inguruko zentro tematikoa egingen dute Arrotxapean, Alde Zaharretik hurbil, Arga ibaiaren gainean. 2004 urterako eraikia egonen omen da. Egitasmoa ez dago oraindik erabat zehazturik. Ikusteko dago zer erakutsiko dieten museoan bisitariei. Bestaren alderdirik zikin eta parrandazaleena ez da egonen, segur aski

Lekunberri • Kuartel berria eraiki nahi dute

Espainiako Barne Ministerioak ez du errespetatu Udalak 1980an hartutako erabakia

Duela bi aste jakinarazi zuen Lekunberriko alkate Jose Maria Aierdik ohikoa ez den arau bat indarrean jarriko duela Espainiako Ministroen Kontseiluak, Lekunberri kuartel berria eraiki ahal izateko.



Espainiako Barne Ministerioak kuartel bilakatu nahi ditu Guardia Zibilak Lekunberri dituen bulegoak. ● GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

ASTEOTAN EGUNKARIETAKO orrietara salto egin badu ere, kuartelarena aspaldiko kontua da Lekunberri. Laurogeiko hamarkadan etxe zahar bat alokatu zuten Lekunberri bizi ziren guardia zibilek, bertan bulegoak kokatzeko. 1999an Barne Ministerioak eraikina erosi zuen, eta, hurrengo urtean, etxea berritzeko plana aurkeztu zuten Udalean.

Etxebizitza hori arauetatik kanpo dago. Udalak 1980an hartutako erabakiaren arabera, eraikin hori eta herrian dauden beste hainbat etxe ezin dira etxebizitza moduan edota enpresa moduan erabili, berauek desagertzea nahi duelako Udalak.

Araza 2000 urtean sortu zen, herrian bizi diren guardia zibilek bertan kuartela eraikitze baimena eskatu zutenean. Hurrengo urtean, ezezko erantzuna jaso zuten Udaletik, eta arauaren funtsa aztertu ondoren, atzera egin zuten.

Hala ere, Jose Maria Aznarren Gobernuak ez du errespetatu Udalaren erabakia, eta bertan kuartel berria eraikiko duela jakinarazi zion Aierdiri duela aste pare bat, nahiz eta akordioaren jakinarazpenik ez duen oraindik jaso.

Jose Maria Aierdiren esanetan, «arauak herritar guztiontzat eginak dira, eta, jakina, guardia zibilek ere errespetatu behar dituzte». «Guk hori besterik ez dugu esaten. Eraikin hori Plazaolako antzinako trenbide-tik gertu dago, eta leku hau oso turistikoa da. Horrelako eraikin batek eskatzen dituen segurtasun

neurriak ikaragarrikoak dira, eta guk ez dugu nahi horrelako etxe bat Lekunberri. Gainera, eraikinez inguratutik dago, eta zirkulazio arazoak sortzen ditu», adierazi du Aierdi alkateak.

Egun, etxe honen beheko solairua besterik ez da erabiltzen, guardia zibilak herrian bertan bizi baitira. Momentuz, EAko parlamentaria den Aierdik ez du erabaki politikoa izan dela esan nahi, azken erabakiaren berri jakin artean. «Ministroen Kontseiluak onartu duen erabakia aurrera eramaten badute, orduan bai, erabaki politikoa izan dela esango dugu, Jose Maria Aznarren Alderdi Popularraren inposaketa bat dela pentsatuko dugulako».

Kasu honek antz handia du Leitzan gertatu denarekin. Espainiako Barne Ministerioak kuartel berri bat nahi du Leitzan, eta, horretarako, Nafarroako Gobernuak Maxurrenea etxea eman dio. Erabaki horrek sumindura sortu du leitzarren artean, eta *Maxurrenea herriarentzat* izeneko herri ekimena osatu dute egitasmoari aurre egiteko. Lekunberri antzeko zerbait gertatuko dela dirudi, herrian kuartelaren aurkako kartelak agertu baitira dagoneko.

→ Estibalitz Ortega

Etxarri-Aranatz

Pediatrekin bueltaka

ETXARRI-ARANAZKO ETA ALTSASUKO osasun etxeetako pediatria zerbitzuetan administrazioak egin dituen aldaketekin asaldatuta daude bertako erabiltzaileak. Etxarri-Aranatzen, orain arte, bazuten pediatria bat egunero lanaldi osoz lanean, 08:00etatik 15:00etara. Baina ekainaren lehenetik aurrera, astean bi egunetan, asteazken eta ostiralean, Altsasura joan beharra du pediatria horrek. Kontua da Altsasuko osasun etxean orain arte bi pediatria zituztela, baina horietako batek erretiroa hartu du eta ez dute ordezkorik bilatu. Horren ordez, Etxarrikoa mugiarazi dute. Dena den, hau eskola garaian izanena da, irailetik ekainera.

Etxarri-Aranazko pediatria zerbitzuko erabiltzaile batek kritikatu duenez, bi osasun etxeak ateratzen dira galtzaile. «Gu galtzen ateratzen gara bi egunetan ez daukagulako zerbitzu osoa. Eta Altsasukoak galtzen ateratzen dira lehen bi pediatria zituzten tokian orain pediatria bat eta erdi dutelako eskola garaian; eta udan, pediatria bakarra. Murrizketa, beraz, beraiendako eta guretako».

Aldaketa hau bertakoekin kontatu gabe egin dute. Etxarriko erabiltzaileak erran duenez, sortu zaien arazo hau azaleratu nahi dute, jende gutik baitaki. «Guraso bakan batzuk dakigu, pediatriarengana joan eta esan digutenean Altsasun zegoela. Gai honen inguruan zerbait egin nahi dugu, eta lehenbiziko gauza da jendeari jakinaraztea zein aldaketa egon den».

→ Asier Azpilikueta

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Azpigaratuak diren herrialdeetan, 777 milioi dira gosea hitza bide praktikotik ezagutzen ari direnak. Garatzeko bidean dauden herrialdeetan, 27 milioi dira; eta bertze 11 herrialde garatueta (garatuak?). FAOren datuak. Gosetiaren argazki bakarra aterako bagenu, afrikarra genuke begi aitzinean, umea seguruenik. Malawikoa, Angolakoa, Sudangoa... Argazkiaren zentzua kontrastea eta paradoxa xerkatzea balitz, Argentinara joko genuke. Bart artio, lehen munduan bizi izan direla sinetsarazi diete. Orain umeak hiltzen dira karrika gorrian. Argentinatik ateratzen dira egunero milioika tona janari (laugarren elikagai ekoizlea da munduan). Tartean, barkuren bat sartzen da Platako portuan Espainiako biztanleak (kasu) emaniko elikagaiekin.

Jacques Diouf senegaldarra da Elikadura eta

Gosea

Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak burua. Erroman egin da Elikadurari buruzko munduko biltzarra: bortz urte geroago (1996an estreinakoz egin zen lehena, eta bertan ezarri ziren hainbat helburu, gehienek bete gabe dirautenak, jakina denez). Ekainaren 10etik 13ra bitartean bildu ziren estatuburu, ministro, funtzionario eta enparauak Cesar eta Pompeyoren hirian. Hasteko, zenbait bilkura aldatu behar izan ziren Italiak jokatzeko zuelakoz Munduko Futbol Txapelketa (Mundukoa!!!), Berlusconi etxeko nagusi lotsagabearen aginduz. Eta hala egin zen. Goi bilerak porrota ekarri du, eta ez du gibelera

eginen gosearen muga. Aitzitik, handitu egingo da, kontrakoa egiten ez dugun artean. Irtenbide gisa, arestian aipatutako etxeko nagusi faxista peto-petoak zera erran zion Jacques Dioufi: gerria estutzeko (!!!). To / no soluzioa.

Soluzioa ez da bakarra. Garaiko datu bat hausnartzeko: lehen munduko nekazari batek jasotzen dituen diru laguntzak dira hirugarren munduko batek jasotzen dituenak halako 48. Adibidez. Globalizazioaren aurpegi krudelena dela erranen dute zenbaitzuek. Inperialismoaren ajeak direla erranen dut nihaurk.

Inperioari bortz axola zaio gosea. Ez da errenta, eta kito.


Artikulu amaitu ostean, medikuarenera noa; kolesterola igo zaidalakoan nago.

Getze ●

Nafarroak Noainen
independentzia
galdu zuela
gogoratuko dute
igandean
hamabigarren aldiz

HISTORIKOKI NOAINGO GUDUA une gako bat izan zen. Nafarroari gelditzen zitzaizkion lurraldeak orduan galdu ziren. 1512an sartu ziren gaztelarrak Nafarroa Garaia konkistatzera, eta 1521ean saiatu ziren nafarrak euren lurra berreskuratzen. Logroñoraino ailegatu ziren. Baina Gaztelak kontraerasoa egin zuen eta atzera bota zituen nafarrak. Noainen egin zuten topo, eta gudaldian bos mila bat nafar hil ziren. Hura gogoratu nahian, Iturralde azterlan eta ekimenetarako elkarteak omenaldia antolatzen du urtero ekaineko azken igandean Getzen, Galar zendea. Aurtengoa hamabigarren aldia izanen da.

Igandé goizeko hamarretan pregoia irakurriko dute Iruñeko Nafarroako Erregeren Jauregian. Ondoren, Getzerako ibilaldia abiātuko da. Ibiltariei 12:30ean eginen diete ongi etorria, Getzen. Mendi izeneko mendiskan, Jose Ulibarrena eskultoreak eginiko Noaingo gudua monumentuaren ondoren, omenaldi ekitaldi nagusi eginen dute. 13:30ean, dantzariak izanen dira Getzeko plazan. Eta ordubete geroago, herri bazka-



Noaingo guduan eroritako nafarrak omenduko dituzte igandean Jose Ulibarrenaren eskulturaren ondoren. ●LANDE F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

1521eko ekainaren 30ean Nafarroako independentziaren aldeko bost mila bat nafar hil zituzten Noaingo guduan. Iturralde elkarteak urtero gogoratzen du gertaera hura, Getzen egiten duen ekitaldian.

ria Getzeko Mutilendako pilotalekuan.

Egitarau hau urtetik urtera errepikatzen da. Aurten, beritasun bat egonen da. Bazkaldu eta gero, 16:30ean, ikusentzu-

neko ekitaldi berezia eginen dute frontoian. Iturralde elkarte kide Gaizka Aranguren hitzetan, ikusentzuneke «sorpresa interesgarria izanen da, ez galtzeko modukoa».

Noaingo gudua gogoratu beharrekoa da «Historiak erakusten dizkigun erreferentzia burutu horiek lagundu diezaguketelako gaur egun egon daitezkeen hainbat aldarrikapenen oinarriak ulertzen». Gaizka Arangurenek erran duenez, «Gaur egun gure nortasun politikoa berreskuartzeko nahia badao gizartearen parte handi batean eta nahi horrek baditu bere abiapuntuak historian ere. Eta horren erakusgarri da hain zuzen ere 1521ean Noainen gertatu zena. Horregatik iruditzen zaigu biziki inportantea dela hura gogora ekartzea».

Erran bezala, igandeko omenaldia Iturraldek antolatu du, baina beste zenbait elkarteren laguntza ere jaso du. Horien artean dago kultur ekimenak sustatzeko Nabarralde enpresa sortu berria. Igandekoa bere lehenbiziko lana izanen da. «Aurtengoa ekitaldi berezia izanen da», adierazi du Arangurenek horren harira. «Bertan aurkeztuko delakoz hemendik aitzina modu iraunkorren lanean ari tuko den egitura bat; egitura horrek kultur mailan eginen du lan, ekimen ezberdinak antolatuz eta orain arte ahots guti izan dutenei eta Nafarroaren ibilbide ez ofiziala agertarazi nahi dutenei ahots gehiago eman nahiean. Igandekoa aukera ezinhobea da Getzera hurbildu eta hori guziaz ezagutzeko».

→ Asier Azpilikueta



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Antzerkia

(Larraburu-Enea. Hegoaldeko lorategia. Bexikulas — nire lorezaina, nire maiordomoa, nire txoferra — eta biok banku batean eserita gaude; gure atzean, iaz erositako Nilo ibaia irudikatzen duen brontzeko eskultura erraldoia. Zuhaitzetan gorderik, zozo bat kantari. Arratsaldea ematen du. Ilunabarraren hasiera, agian. Urtarora zehazgaitza)

Xabier: Badoa beste egun bat. Finean, hutsean emandako lurraren beste buelta bat. Kito. Gure bitzen antzeko zer edo zer: hutsaren erdian biraka ibiltzen diren zibak gara.

Bexikulas (isilune baten ondoren): Bai eta ez, Nausi, bai... eta ez. Nik biraka darabiltzaten ziba horietatik ehunka heriotzara gidatu izan ditut, eta orduan gizon eta gudari hitzekin izendatzen genituen, eta ez ziba; eta nire gidapean, Omaha hondartzan, Ardennes, Arhem edo Bastognen bizia galdu zuten haiek ez zuten hitz hori inondik inora estimatuko, eta bizipen lazgarrien erdian jirabiraka hiltzen zirela erantzungo zizuten, Nausi, eta ez, inolaz ere ez, «hutsaren erdian»...

Xabier: Beno baina...

Bexikulas:... eta ziba hauek Bizipen Lazgarrien Hiztegiaren agertzen diren hitzak aipatuko zizkizuten gero, Nausi, eta haien ondorioak zehatz-mehatz deskribatuko: 120 milimetroko morteroen ezteandak, King Tiger tanke izugarrien 88ko tiroaren infernua, Waffen SS taldeen su-ahalmena, Stukaren oihua eta...

Xabier: Baina...

Bexikulas:... eta okerrera: heriotzara nik bidaltzen nituela!! nik esaten bainien «har ezazue baserri hura!, orain!», «bidegurutzera!, azkar!», «atera zuhaitzen atzetik eta tiroa bota!, koldar halakoak!», eta nire agindu bakoitzaren atzetik heriotzak bere betiko uzta jasotzen zuen; egun batean sei, beste batean hogeita sei, eta beste batean are dibisio osoak! Horrelakoetan, Jesus, Maria eta Joxe!!, horrelakoetan hobe duzu jokoa bertan behe- ra utzi, eta salbatu duzun azken jokora itzultzea!...

Xabier: Hori esan nahi nizan... Combat Mission ordenagailuaren jokoa serioegi bizi duzula!, ez direla gizasemeak kontxo!!, bitak direla: zero, bat, bat, zero, bat, bat, zero, bat... eta abar!!!

Bexikulas (isilune baten ondoren):... Bai eta ez, Nausi, bai eta... ez!!! ●

Iruñea ●

60 urteetako guatekea gaur

AITZOINGO ARTSAIA ARETOAN 60 urteetako guatekeak birgogoratuko dituzte gaur gauean. Duela zenbait aste Eduardo Medina Uri musikariaren omenaldirako elkartu ziren aspaldiko hainbat musika taldek, oraindik ere sasoi onean zirela ikusirik, guateke bat antolatzea erabaki zuten, garai hartako musika eta giroarekin.

Jaialdia 22:30etan hasiko da. Denetara zazpi talde ariko dira: Totems, Rebeldes, Mixto, Juniors, Condes, Jafans eta Bit

Shadow. Lehenbiziko seietako bakoitza ordu laurden batez ariko dira. Bit Shadow taldeak, bere aldetik, ordubeteko kontzertua eskainiko du. Aipatzekoa da talde honetan daudela Marco Rossi, Mustang taldeko fundatzailea, eta Yoan Gabin, Gatos Negros taldeko kidea. Denek ye ye garaiko kanten errepertorio zabal batekin atsegin emanen diete bertaratutakoei. Antolatzailuek iragarri dutenez, opariak banatu eta bestelako sarpresak ere izanen dira.

Sakana ●

Birziklapena errazteko gida

BIRZIKLAPENA ERRAZTEKO BALIO duen gida bat aurkeztu zuen atzo Lakuntzan Sakanako Mankomunitateak. Sakanako bizilagun guzietan laster banatuko zaie gida honek birziklapena hobetzeko informazioa biltzen du.

Sakanako Mankomunitateak 1993 urtean hiri hondakin solidoen biltzea selektiboa egiten hasi zen, Sakanerriko biztanleek papera, kartoia, beira eta pilak bereizi ahal izateko. Iaz aurrerapausu handia egin zuten


ontziak biltzeko hori koloreko edukiontzia ezarri.

Iaz hartu datuen arabera, Sakanako biztanle bakoitzak 1,11 kilo zabor sortzen du egunean. Sakanako Mankomunitatean, biztanle eta egun bakoitzeko 0,18 kilo paper, kartoia eta beira birziklatzen da. Mankomunitatearen arabera, «baliabideak jarri gero, prest daude gehiago birziklatzeko, urtean zabortegira iristen diren 7.100 zabor tona horiek murriztuz». Gida lan hori errazte aldera argitaratu dute.

Plan estrategikorik ez

Makurtzen. Gerardo mus bikotekide bikruzifera baino baskoagoa buru makur dabil. Izan ere, hondoratu berri zaio zenbaitetan mus partiden ondotik, kuba-libreek epelduta, berotuta, berak eta biok izaten ditugun eztabaida sasi politiko sasi etnografikoetan darabilen teoriaren oinarri enpiriko nagusia. On **Xabier Arzalluz**en tesi hematologikoak bazterrean utzita, Gerardok bide filologikoari darraio euskal herritarron euskal herritartasuna hizkuntzan datzala argudiatuz. Orain arte pantaila txikia zerabilen horren frogatzat —bost aditz trinko paragrafo bakarreen: saso literario ezin hobean nago—.

Oka egiten. Zehatzago esanda, Gerardok ETB1en eta ETB2ren programazioen arteko desberdintasun bat erabiltzen zuen frogatzat. ETB2n aspaldidanik, **Antxon Urrosolo**ren garaietatik—antzeko abizendun batekin nahas ez zeaten behin eta berriz bere abizenak hiru 'o' eta 'u' bakarria zituela nabarmentzen zuen hura—, pantailaratzen dituzte gonbidatuen oka egitean oinarrituriko saioak, *Esta es mi gente* eta enparauak. Gerardoren arabera, ETB1ek ETB2ko saio guztien kalkoa egin ohi badu ere, ez zuen halakoen kopiarik egiten ezinezkoa zelako, euskal-



Antxon Urrosolo, talk show gidari beteteranoa.



Estitxu Fernandez, talk show gidari hasiberria.

dunok, euskara dakigunok, sekula ez genituzkeelako geure erraiak jendarean biluztuko, egiatzko eskualdunok, benetako euskal herritarrok, desberdinak garelako.

Entzuten. Gerardoren beraren garai

bateko mito erotiko batek, **Estitxu Fernandezek** —bertsolari hasiberria zelarik, Gerardo gaixoa txolinduta zuen: Nafarroako Bertsolari txapelketako saio guztietara joaten zen—, baina, *Bexamela* izeneko talk-show-a —hala esaten omen zaie tripaki saiooi—

pausoa izan zitekeela esan nion. Berak, burua altxatu gabe, normalizazioarena aspaldiko kontua dela erantzun zidan, Euskal Herriak jada ez duela normalizaziorik behar, orain plan estrategikoak behar dituela. Gerardo burumakur dabil. Eta ni desfasatuta.

abian jarri berri du ETB1en, besteak beste Gerardoren teoriaren froga enpirikoa eraisteko. Nik ez dut saioa ikusi, baina Euskal Herria Irratiko telebista kritikari **Urko Aristik** saioa egurtu zuen aurreko egunean. Ez naiz ni Euskal Herria Irrati zalea, eta are gutxiago Metropoli Foral zalea —ordu horretan askoz nahiago dut **Carlos Herreraren** saioa—. Baina aurrekoan, autoan gindoazela, emazteak jarri zuen, eta Aristi hori, beste bi esatariok ez bezala, sekulakoa iruditu zitzaidan.

Gupidatzen. Biharamunean, jakina, mus partida amaitu bezain pronto, Gerardori zirika hasi nintzaion, Aristiri entzundakoak baliatuz. Hasieran, gozatu nuen, baina gero, laguna burumakurregi ikusi nuen. Eta kezkatu nintzen, politika tartean dela, Gerardo inoiz gutxitan izaten baita burumakur. Gauzak horrela, gupidatsu, animatzen saiatu nintzen. Zerbait esatearren, *Bexamela*-rena normalizazio bidean aurrera-



panpilonia zirkus

Hirukote xelebrea

Ia dena prest zegoen. Hiria goiz horretan nerbiosturik esnatzen da, eguerdiko hamabiak jotzeko txirrintarekin. Laneguna izaten da, igandea ez bada, jakina. Baina arras lanegun berezia, lantoki aunitzetan egun erdiko jardunaldia baitute. Jendea presaka ibiltzen da alde batetik bertzerara: azken erosketak, azken ukituak, azken lanak, azken garbiketak, azken konponketak... urteroko kontua izaten da. Baita 80ko hamarkadako urte hartan ere.

Nafarroako Gorteak kaleko banku bulegoan ere lanean ari ziren, buru-belarri, gainera. Goiz hartako bezeroen artean, gainera, baziren australiarrak, suediarak, yankiak eta bertze. Bankuko langileak, ordea, lasai, abegitsu, jator, gehienak zuriz jantzita, baina zapia lotu gabe, pen-

tsamendua bertzelako aferetan pausatua. «Hi, Joxemari, enkargatu dituk Monasterion fritoak, ezta?»—.

Hamabiak laurden gutxirako, azken bezeroak kanporatu eta atezaina fritoz beterik agertu zen. «Nola dagoen Monasterioko alde hori, jendez gainezka, ia bi bandejak bota zizkidatek». «Hi, Periko, emaiok buelta ateko kartelari, hau itxita zegok»—. Olivetti etxeko idazmakinak isildu eta langile guztiak sarrera aldeko mahaien inguruan bildu ziren, fritoen eta edariaren arrimura.

Hamabiak bost gutxi. Jendea ezin gel-dirik egon, erdi jauzika, zirrarak hartua, xanpain aparra airean, eskuak pintxo eta ardoz beterik, irribarre zabala ezpainenetan, ozen hizketan eta halako batean hiru lagun sartu ziren, zapi gorri banak

LANDER F. ARROIAIBE / ARGAZKI PRESS



Banketxe honetan sanferminetan lapurtu zuten behin.

aurpegi erdia estalita: «¡Esto es un atraco!»—. Banestoko langileek txantxatztat jo zuten hura: «Hara, hirukote xelebrea», «To, edan xanpaina lasai eta Gora San Fermín», «Biba festa, hau jende barre-

Enrike Diez de Ultzurrun

garría», «Hi, hi nor haiz? Hik baduk Vasconikiako Iñakiren antza», «Ze, pistola hori karriko Josen erosi duk, ezta? Ilobari antzekoa erosi zioat»—.

Inork ere seriotzat hartzen ez zituela ikusita, autoestimua galtzeko zorian, sartu berriek pistola mehatxagarri mugitu, ahotsa goratu, «Azkar, dirua, bertzenaz San Ferminen kapotikoak ere ez zaituzte salbatuko»—, eta, orduan bai, langileak bat-batean mututu ziren, hura egiatzko banku lapurreta baitzen. Lapurrek ziztuan egin zuten lana, eta ateratzerakoan, karrikatik Gipuzkoako musika banda handi horietako baten soinuak sartu ziren barneraino. Sanferminak hasiak ziren. Poliziari ere —sinesgogor— kostatu egin zitzaion iristea eta Menendez inspektoreak atrakatzailen janzkerari buruz egindako galderari denek erantzun bera eman zioten: «Zuriz zihoazen, zapi gorri eta guzti»—. Zalantzarik gabe, oso arrasto ona polizientzat.

Julia Montejo

ZINEMA ZUZENDARIA

«Etorkinen gaia berbera da hemen eta AEBetan»

i AZ EGINDAKO LANA DA *SIN RETORNO*. Hainbat jaialditan aurkeztu du Montejok, Nebotekin batera, eta zenbait sari eskuratu ditu. Sari horiek filma hemen aurkezteko aukera eman diotela azpimarratu du zuzendari nafarrak. Lana etxean erakutsi ondoren, pozik dago.

■ Etxean aurkeztu duzue zure filma; zer moduz?

Oso ongi; egia erran, filma hemen erakusteko gogo handia nuen, eta oso ongi ateratu da. Jendea gustura gelditu dela uste dut.

■ IPESek (Gizarte Ikasketarako Talde Eragilea) aurkeztutako Emakumearen eta Zinemaren Erakustaldian aurkeztu duzu, gainera.

Bai. Zikloa gure filmarekin hasi da, eta hori niretzat sekulakoa izan da, erakustaldia ongi ezagutzen dudalako; oso gustuko dut, eta nire lehen filmarekin parte hartzea zoragarria izan da.

■ Zure lehen filman, *Sin retorno* izenburuko lanean, emigrazioaren gaia jorratu duzu; zergatik?

Estatu Batuetara paperik gabe sartzen den etorkinaren istorioa kontatzen dugu. Alabarekin dago, baina ezbehar batek dena hankaz gora jarriko du. Auto istripu larria izan du, eta egoera horri aurre egin behar dio. Hainbat aukera du, baina bakar bat ere ez da ona. Etorkinen gaia jorratzen du film osoak, baina guri gehien interesatzen zitzaiquina gizon horren egoera zen. Hori da, neurri batean, istorioa unibertsal bilakatzen duena. Eta hori zen gure asmoa, istorio zehatz batetik abiatuta, istorio unibertsal bat osatzea.

■ Nola sortu zen proiektua? Errealitatean du oinarri istorioak?

Neurri batean bai. Abiapun-

«Urtebetez filma hainbat jaialditara aurkeztu dugu, eta horrela lortu dugu lehen itxita ziren hainbat ate zabaltzea, eta filma leku gehiagotan aurkeztea»



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

tua filmean parte hartzen duen aktoretako batek kontatutako istorioa da. Jesus Nebot ezagutu zuen Los Angelesen, eta hari eman zion alabarekin auto istripua izan zuen etorkin baten berri. Haien ihesaldiaren irudiak bazituen, eta hura izan zen filmaren abiapuntua. Hala ere, filmaren muina guk osatutako fikzioa da.

■ Gaurkotasun handiko gaia da etorkinena hemen; Amerikako Estatu Batuetan ere bai?

Nik uste dut antzekoa edo berdina dela egoera. Guretzat, fenomeno berria da, nolabait; Estatu Batuetan fenomeno zaharragoa da, baina oraindik ere, hemen bezala, bertakoak baino gutxiago balira bezala begiratzeko dituzte. Etorkinak paperik ez badu, gainera, gaizkiletzat jo-

Julia Montejok zuzendutako aurreneko filma da 'Sin retorno'. Jesus Nebotekin batera egindako proiektua da, eta joan den astelehenean IPESek antolatutako Zinemaren eta Emakumearen Erakustaldian aurkeztu zuen. Etorkinen gaia jorratzen du filmak.

tzen dute berehala. Zoritxarrez, leku guztietan berdin gertatzen da. Amerikako Estatu Batuetan filmatu genuen, baina hemen ere egin genezakeen. Istorioa ez litzateke aldatuko.

■ Zuzendu duzun aurreneko filma izan da; kontent zara emaitzarekin? Nolako esperientzia izan da?

Emaitzarekin oso pozik gelditu naiz, eta esperientzia zoraga-

soslaia

Duela 30 urte sortu zen Julia Montejok Iruñean. Txikitatik argi izan zuen zinema zela berak landu nahi zuen arloa, eta AEBetara joateko aukera izan zuenean, ez zuen zalantzarik egin. Nafarroako Gobernuak beka eman zion UCLAko unibertsitatean aritzeko, eta hara joan zen.

AEBetan zazpi urte eman ditu Montejok. Zinemaren esparruan hasi aurretik, telebistarako egin zuen lan nafarrak. Jesus Nebotekin bere lehen filma zuzendu aurretik, halaber, gidoigile lan egin zuen hainbat telebista kate eta filmetarako.

AEBetatik itzuli eta urtebete darama Montejok Madrilen. Aurreko urtea AEBak eta Venezuela artean eman zuen. *Sin retorno* pelikula Iruñean aurkeztu ondoren, esku artean proiektu ugari duela erran digu Montejok, baina ez digu gehiago aurreratu nahi izan. Pantailan ikusiko ditugu.

Lagun komunak genituen. Beste behin ere kontratatu ninduen gidoi bat idazteko, baina, zoritxarrez, proiektu hark ez zuen aurrera egin. Bigarren aukera hau sortu zenean, berehala dei egin zidan Nebotek, eta nik ez nuen zalantzarik egin.

■ Hainbat sari irabazi dituzue dagoeneko filmak. Lehen filmari ezin zaio gehiago eskatu, ezta?

Oso pozik gaude, sari horiek filma zabaltzeko aukera eman digutelako batez ere. Filmean parte hartzen duten aktoreak ezagunak dira AEBetako telebistan, baina ez dira sona handiko aktoreak, eta horrek zailago bihurtzen du banaketa. Ondorioz, urtebetez filma hainbat jaialditara aurkeztu dugu, eta horrela lortu dugu lehen itxita ziren hainbat ate zabaltzea.

■ Nafarroako Gobernuak emandako bekarekin joan zinen AEBetara ikasitera. Espero zenuena aurkitu duzu han?

Ni ilusio handiarekin joan nintzen. Zinema beti maite izan dut, eta niretzat, AEBetara joatea zinemaren gunera joatea zen. Gauza asko egiteko asmoarekin joan nintzen, eta gauza asko egiteko aukera izan dut, egia erran; baina, neurri batean, egoera ez da hemengoaren oso bestelakoa. Hemen bezala, aukerak lortzeko lan gogorra egin behar duzu. Niretzat oso esperientzia ona izan da.

■ Han egindako lan horrek balio izan al dizu hemen?

Bai, egia erran ate asko zabaltzeko dizkit hemen, eta, orain, hainbat proiektutan nabil murgilduta. Iaz, adibidez, hemengo etxe batek eskatuta, Joaquín José Martínez heriotza zigorrari ihes egin zion presoaren inguruko dokumentua egin nuen Floridan. Madrilen bizi naiz orain, urtebete daramat han; eta oraingoz, han gelditzeko asmoa dut, baina ez dut AEBetara itzultzeko aukera baztertzen. Proiektuak sortzen diren lekuan egonen naiz.

→ Edurne Elizondo



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Kale borrokalariak

Iruñeko agintariak festen aurreko giroa mi-kazteko ahaleginak eginagatik, behin txupinazoa zeruratu eta gero Nafarroako hiriburu-biztanleok Barcinakeriak ahanztiko ditugulakoan nago. Izan ere, urtean behin bada ere, guztiok dugu amets gaiztoak alde batera uzteko eskubidea. Irugarrita zegoen bezala, Yolik 1979an Balduzek hitzartu zuen sistema hautsi eta sozialisten esku utzi du eguerdiko hamabietako txupinazoari su emateko ohera. «Batasunak indarkeria gaitzesten ez duenez», dio Yolik, «ezin du ordezkatu Udala». Horregatik, Jimenez izanen da bihar zortziko protagonista.

Alkatearen ikuspuntutik begiraturik, ez dago gaizki: Batasuna baztertzeaz gain, azken urteotako zerbitzuen zorra ordaintzeko modua ere bada. Guztiok bagenekien mutikoa Yoliren zerbitzari leiala zela. Orain bertzerik ere bada-kigu: tipoa UGTko bertze pertsonaia ospetsu-rekin (Anzizar, Apestezia, Casas) Nafarroako egunkari baten egoitzara joan zen Espainiako bi sindikatu nagusiek antolatutako huelga egunaren bezperan, bertan lanean ari zirenak iraindu eta mehatxatzeko. Indarkeria aunitzetan pairatu eta salatu duen emakume bat faxista taldeko partaidea izatea bezain lotsagarria da etxegintzako enpresaburu bihurturiko sindikalista ohiak langileen ordezkari lanetan ikustea.

Gainera, ustezko sindikalistek, behin kale borrokalari bihurturik, Cordovillara joateko aukera zuten, Nafarroan gehien saltzen duen egunkaria huelga egunean karrikara ez zedin. Baina ez, horrelakoek ahula nahiago dute, batez ere indartsua kide, lagun eta babesle dute-nean. Albistea larria bada ere, ez Gobernuak eta ez kazetarien elkarteak ere ez dute hitzik erran. Zer gertatuko litzateke sindikatu aber-tzaleek Cordovillako egunkaria boikotatzera joan balira? Espainiako komunikabideetan, hemengoetan eta agintarien hitzetan, hura askatasunaren aurkako atentatu larria eta nafar nortasuna hobekien defendatzen duen perio-dikoa isilarazteko saioa izanen zen. Horrelako-ak ikusirik, ez dut dudarik: beldurgarria da Na-farroan zein Madrilen nagusitzen ari den giroa. Suhiltzaile gehiago eta kale borrokalari gutiago behar ditugu. Giro politikoa, ordea, erabat al-deko du suak. Tamalez.

gure aukerak

MUSIKA

- ▶ **Uharte:** Psicosis, Sakro, Detested eta Pentakrator taldeak gaur, 19:00etan, gaztetxean.
- ▶ **Altsasu:** Jorge Sanchez abeslaria gaur, 22:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Arcanda taldea gaur, 22:15ean, Media Luna tabernan.
- ▶ **Zangoza:** Na Tua Man eta Lengua de Trapo taldeek gaur dute Pop-Rock Lehiaketako finala, 22:30ean, Arkupeetako plazan. Ondoren, Skalariak taldeak kontzertua eskainiko du.
- ▶ **Arraitza:** Banda del Muñon taldea gaur, 00:30ean.
- ▶ **Atarrabia:** Hamlet taldea gaur, 23:00etan, Udaletxe plazan.
- ▶ **Burlata:** Jorge Sanchez kubatar abeslaria eta Eremu heavy taldea bihar, 20:00etan, Askas plazan.
- ▶ **Iruñea:** Lengua de Trapo, Mantra, Krakem, Amigos de lo Ajeno, Chac Bolay, Gene Cats, Kea, Milana, Mr. Fylyn, Mistake, Four Horsemen, Samsara eta Covering Them taldeen jaialdia bihar, 21:00etan, Antoniutti parkean.
- ▶ **Erriberri:** Flekys taldea bihar, 23:30ean, Carlos III plazan.
- ▶ **Uharte:** Bol taldea bihar, gaueko ordu batean, Limite aretoan.

LEHIAKETAK

- ▶ **Barañain:** Haizea Kultur Elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. Gaia: euskal kultura. Lanak hila akitu arte aurkez daitezke.
- ▶ **Lizarra:** Lizarrako Emakumeen Asanbladak Maria de Maeztu literatura lehiaketan parte hartzeko seigarren deialdia egin du. 18 urte goitiko emakume guzkie parte har dezakete. Testuak euskaraz edo gaztelaniaz idatziak behar dute izan, jatorrizkoak eta argitaragabeak. Obrak hartzeko epea uztailaren 31n akituko da. Saria 900 eurokoa da.

ANTZERKIA

- ▶ **Burlata:** Behi Bi's txotxongilo taldeak *Bertsotas* lana taularatu-ko du bihar, 18:00etan, Askas plazan.
- ▶ **Uharte:** Bele Bizi taldeak *Ke-takoiak* antzezlan eskainiko du bihar, 20:30ean, kultur etxean.
- ▶ **Mutiloabeiti:** Pai zaragozako taldeak *Tirifati* izeneko kale ikuski-zuna eskainiko du igandean, 19:30ean, Mutiloa plazan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Burlata:** Txema Etxeberriaren margolanak Joakin Azkarate karrikako kultur aretoan izanen dira hila bukatu arte, gaur eta bihar 19:00etatik 21:00etara eta

igandean 12:00etatik 14:00etara.

- ▶ **Iruñea:** www.aleccon.org webgunean, Christian Esandia haurra-aren aldeko Euskal Herriko 22 artistaren margolanen erakus-keta izanen da uztailaren 15a arte.

BESTELAKOAK

- ▶ **Iruñea:** Gaur ospatuko dute Hizkuntz Eskolako ikasturte amaie-ra ekitaldia. 12:30ean musika emanalditxoaren egon da, En-semble Durendal taldearen es-kutik, eta ondoren, otordua.
- ▶ **Iruñea:** Txantreako Ezkaba pla-zan dagoen Euskaldunon Biltokia inauguratuko dute gaur, 19:00etan. 22:00etan, inaugura-

zio afaria izanen da, eta horren ostean, musika eta dantzaldia.

- ▶ **Mutiloabeiti:** Eskulangileen era-kusketa eginen dute bihar, 11:00etan, Mutiloa plazan.
- ▶ **Burlata:** Burlatako Eguna ospa-tuko dute igandean: dianak (09:30); erraldoi eta buruhan-diak (11:00); eskulangileen era-kusketa (11:00); dantzariak eta pregoia (12:00); herri kirolak eta trikitilariak (13:00); herri bazkaria (14:30), eta dantzal-dia, Agurtzane eta Jonekin (17:00).
- ▶ **Uharte:** Igandean Uharteko Egu-na ospatuko dute. Dianak, dan-tzariak, eskulangileen erakus-keta, herri kirolak, haurrentza-ko jokoak eta dantzaldiak izan-nera dira, besteak beste.

Asteko erakusketa



• EGUNKARIA

Alfredo Sada elkarte

Non: Molmar galerian (Curia, 18).

Noiz arte: Ekainaren 29a arte.

Ordutegia: Gaur 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era eta bihar 11:30etik 13:30era.